

87/2015 FORU DEKRETUA, abenduaren 15koa, gehieneko ekarpenak onartzekoa, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoak, ezarritako zerbitzuetan.

(2015eko ekainaren 26ko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

15/2015 Foru Dekretuak, ekainaren 2koak, mendekotasuna dutenentzako foru eskumeneko arreta zentroen erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa arautzen du. Bereziki, honakoak ezartzen ditu: erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa erabakitzeko irizpideak, ahalmen ekonomikoaren arabera aplikatu ahal izango diren hobariak, erabiltzaileei bermatuko zaizkien erabilera libreko gutxieneko kopuruak, eta ordainduko dituzten gehieneko zenbatekoak.

Foru dekretu bereko amaierako hirugarren xedapenean jasotakoaren arabera, 2016ko urtarrilaren 1ean jartzen da indarrean foru dekretu hori, desgaitasuna duten pertsonei arreta ematen dieten zerbitzuetan, egoitzakoak izan nahiz eguneko arretakoak izan; beraz, aipatu zerbitzuetarako gehieneko ekarpenak onartu behar dira.

Aipatu foru dekretuko 3.1. artikuluan xedatzen da gehieneko ekarpen horiek foru dekretu bidez onetsiko direla, Gizarte Politikako Departamentuak proposatuta.

Horrela, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

Onartzea 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuko 2. artikuluan aipatzen diren zerbitzuetarako gehieneko ekarpenak, foru dekretu honen eranskinean jasotzen diren zenbatekoetan ezarri direnak.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

ERANSKINA / ANEXO

GEHIENEO EKARPENEN ZENBATEKOA		IMPORTE DE LAS APORTACIONES MÁXIMAS	
ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK		SERVICIOS PARA PERSONAS MAYORES	
1. zenbatekoa. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroak.		Aportación 1. Centros residenciales para personas mayores en situación de dependencia.	
1.1 zenbatekoa. Unitate psikogeriatrikoa.	66,58 €	Aportación 1.1. Unidad psicogeriatrica.	66,58 €
1.2 zenbatekoa. MBBn 3. eta 2. graduan balora-tutako pertsonak.	66,58 €	Aportación 1.2. Personas valoradas en Grado 3 y 2 del BVD.	66,58 €
1.3 zenbatekoa. MBBn 1. graduan baloratutako pertsonak.	53,25 €	Aportación 1.3. Personas valoradas en Grado 1 del BVD.	53,25 €
1.4 zenbatekoa. Autonomoak eta mendekotasun egoeran baloratu gabekoak.	43,72 €	Aportación 1.4. Personas autónomas o sin valoración de dependencia.	43,72 €
2. zenbatekoa. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak		Aportación 2. Centros de día de personas mayores en situación de dependencia	
2.1 zenbatekoa. Laneguneko zerbitzua.	15,50 €	Aportación 2.1. Servicio durante los días laborales.	15,50 €
2.2 zenbatekoa. Jaieguneko edo asteburuko zerbitzua.	15,50 €	Aportación 2.2. Servicio durante los días festivos o fines de semana.	15,50 €
BURUKO GAIXOTASUNA DUTENENTZAKO ZERBITZUAK		SERVICIOS PARA PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL	
3. zenbatekoa. Buruko gaixotasuna dutenentzako etxebizitzak eta egoitza zentroak		Aportación 3. Viviendas y centros residenciales para personas con enfermedad mental	
3.1 zenbatekoa. 1. taldea. Laguntzadun etxebizitzak.	14,20 €	Aportación 3.1. Grupo 1. Viviendas con apoyos.	14,20 €
3.2 zenbatekoa. 2. taldea. Egoitza unitateak.	19,60 €	Aportación 3.2. Grupo 2. Unidades residenciales.	19,60 €
4. zenbatekoa. Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroak		Aportación 4. Centros de atención diurna de rehabilitación psicosocial	
4.1 zenbatekoa. Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroak.	8,50 €	Aportación 4.1. Centros de día de rehabilitación psicosocial.	8,50 €
EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOAK		UNIDADES RESIDENCIALES SOCIO SANITARIAS	
5. zenbatekoa. Egoitza unitate soziosanitarioak		Aportación 5. Unidades residenciales socio sanitarias	
5.1. zenbatekoa. Egoitza unitate soziosanitarioak.	32,96 €	Aportación 5.1. Unidades residenciales socio sanitarias.	32,96 €
DESGAITASUNA DUTENENTZAKO ZERBITZUAK		SERVICIOS PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD	
6. zenbatekoa. Desgaitasuna dutenentzako egoitza eta etxebizitzak.		Aportación 6. Residencias y viviendas para personas con discapacidad.	
6.1. zenbatekoa. Laguntza zabaleko eta orokorreko egoitzak eta etxebizitzak.	55 €	Aportación 6.1. Residencias y viviendas con apoyo generalizado y extenso-generalizado.	55 €

6.2. zenbatekoa. Laguntza zabaleko etxebizitzak.	45 €	Aportación 6.2. Viviendas con apoyo extenso.	45 €
6.3. zenbatekoa. Laguntza mugatuko etxebizitzak.	35 €	Aportación 6.3. Viviendas con apoyo limitado.	35 €
6.4. zenbatekoa. Aldizkako laguntzako etxebizitzak.	25 €	Aportación 6.4. Viviendas con apoyo intermitente.	25 €
6.5. zenbatekoa. Egoitza zerbitzua duten heziketa bereziko zentroak.	25 €	Aportación 6.5. Centros de educación especial con servicio residencial.	25 €
<i>7. zenbatekoa. Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak.</i>		<i>Aportación 7. Centros de día para personas con discapacidad.</i>	
7.1 zenbatekoa. Laguntza zabaleko eta orokorreko eguneko zentroak.	10,50 €	Aportación 7.1. Centros de día con apoyo extenso-generalizado.	10,50 €
7.2 zenbatekoa. Laguntza mugatuko eta zabaleko eguneko zentroak.	8,50 €	Aportación 7.2. Centros de día con apoyo limitado-extenso.	8,50 €